



Izenak gogoratzen hasiko gara, uda nola igaro duten komentatzen...

Egunerokoan, arau batzuk bete behar izaten ditugu: etxean, ikastolan, kalean ...  
Denen artean, arau horietako batzuk aipatu.

Kartoi mehe batean, katekesiko arauak ipiniko ditugu, eta ikasturte honetan horiek betetzeko konpromisoa hartuko dugu.

.-EZ MOLESTATU  
. -EZ OIHU EGIN  
. -EZ BORROKATU  
. -EZ ERANTZUN GAIZKI

.-LAGUNDU  
. -ADI EGON  
. -LANAK EGIN  
. -DENA TXUKUN UTZI


Tren baten modura daude. Margotu, eta kartoi mehean itsatsiko ditugu. Haiekin komentatu zer iruditzen zaien.


Behean, haur guztiek eta katekistak izenak ipiniko ditugu. Kortxoan jarriko dugu horma-irudia.

Bigarren mailako edukien laburpen modura, galdera-erantzunen jokoa daukazue hor. Beharbada, binaka jokatzera litzateke egokiena.

Fitxak banatu eta mahai gainean jarri, zer idatzita dagoen ikusten dela.

«Nork sortu du mundua?» galdera daramana hasiko da. «Jainkoak sortu du mundua» duenak erantzungo du, eta behean daukan galdera egingo du.  
Eta horrela hurrenez hurren. Orrietan daukazue jolas osoa, jarraitu ahal izateko.





Egun on  
Buenos días

Eskerrik asko  
Gracias

Mesedez  
Por favor

Lagundu  
Ayudar

Adi egon  
Atender

Lanak egin  
Trabajar

Guztia ordenatua utzi  
Dejar todo ordenado



Emausko bi ikasleak ogia zatitzerakoan  
Jesus ezagutu zuten.

.....  
Nork egin du mundua?

Jainkoak egiña da mundua.

.....  
Nor da Jainkoa?

Jainkoa Jesusen Aita eta gure Aita da.

.....  
Nork egin ditu izaki guztiak?

Jainkoak egin ditu izaki guztiak.

.....  
Nork egin ditu eguzkia eta ilargia?

Eguzkia eta ilargia Jainkoak egin ditu.

.....  
Zertara nator katekesira?

Jesus ezagutzera nator Katekesira.

.....  
Nola portatu behar dugu katekesian?

Katekesian txintxo portatu behar gara.

.....  
Nor da Jesus?

Jesus, Jainkoaren semea da.

.....  
Non jaio zen Jesus?

Jesus Belenen jaio zen.

.....  
Nortzuk ziren Jesusen gurasoak?

Jesusen gurasoak Jose eta Maria  
izan ziren.

.....  
Jesus gure antzeko gizakia izan zen?

Bai, Jesus gure antzeko gizakia izan zen.

.....  
Nola hil zuten Jesus?

Jesus gurutzean josita hil zuten.

.....  
Nortzuk izan ziren Jesusen  
lehenengolagunak?



Jesusen lehenengo lagunak  
Apostoluak izan ziren.

.....

Ze lanbide zuten Jesusen lagun batzuk?

Jesusen lagunak arrantzaleak ziren.

.....

Zer esaten digu guri Jesusek?

Jesusek esaten digu:  
"Jarraitu niri eta elkar maitatu"

.....

Jesusek zer egiten zuen?

Gaixoak sendatu, pobreei lagundu...

.....

Zer erakutsi zigun Jesusek?

Jainkoa gure aita dela  
erakutsi zigun Jesusek.

.....

Zein otoitz erakutsi dit Jesusek  
Jainkoari hitzegiteko?

Jesusek Jainkoari hitzegiteko  
"Gure Aita" erakutsi dit.

.....

Nor da nire lagun hurkoa?

Pertsona guztiak: baztertuak,  
pobreak eta abar

.....

Zer erakusten digu Jesusek  
zoriontzu izateko?

Zoriontsunak, pakea, maitasuna,  
bihotz garbia, alaitasuna,...

.....

Nolakoak bihurtzen gaitu  
Jesusen espirituak?

Jesusen espirituak ausartak izatera  
bihurtzen gaitu.

.....

Zein da kristauen ezaugarri nagusia?

Kristauon ezaugarria nagusia  
Gurutzea da.

.....

Hil aurretik zer ospatu zuen Jesusek  
bere lagunekin?

Jesusek bere lagunekin afari bat  
ospatu zuen.

.....

Afarian, ogia eta ardoarekin  
zer egin zuen Jesusek?

Ogia eta ardoa bedeinkatu eta  
banatu egin zituen.

.....

Zer ospatzen dugu Gabonetan?



Gabonetan Jesus jaio dela  
ospatzen dugu.

.....

Zer ospatzen dugu Aste Santua?

Aste Santuan Jesus hil eta Piztu dela  
ospatzen dugu.

.....

Zergaitik jarraitzen diogu Jesusi?

Gure eredu on eta maitagarria delako  
jarraitzen dugu Jesus.

.....

Zer ospatzen dugu kristauak  
igandeetan?

Igandeetan Jesus gure artean dagoela  
ospatzen dugu.

.....

Nork sendatu zuen Bartimeo?

Bartimeo Jesusek sendatu zuen.

.....

Samariar Onaren parabola nork  
kontatu zuen?

Samariar Onaren parabola  
Jesusek kontatu zuen.

.....

Non azaltzen dira Jesusek esandakoak?

Jesusek esandakoak Biblian  
asaltzen dira.

.....

Nork erakusten digu zoriontzu izaten?

Zoriontzu izaten  
Jesusek erakusten digu.

.....

Nola sartzen gara kristauen taldean?

Bataioaren bidez sartzen gara  
kristauen taldean.

.....

Jesus hil eta hirugarren egunean  
zer gertatu zen?

Jesus hil eta hirugarren egunera  
pistu egin zen.

.....

Emausko bi ikasleak  
nola ezagutu zuten Jesus?